




### 1.1.1. Euskararen egoera eta garapena administrazioan eta arlo juridikoan.

Hizkuntza baten garapena eta gizarte-egoera hizkuntza horren estatusak, erabilerak, eta corpusak adierazten digute.

-  **Hizkuntzaren estatusa.** Hizkuntza baten estatusa hizkuntza horrek gizartean duen aintzatespenaren, estaltzen dituen gizarte-eremuen eta betetzen dituen funtzioen araberakoa da.
-  **Hizkuntzaren erabilera.** Hizkuntza baten erabilerari neurria hartzeko kontuan hartu behar da zenbat hitzun dituen, zenbat erabiltzen duten hitzun horiek hizkuntza eta zertarako erabiltzen duten hizkuntza hori: zein testuingurutan, nolako zereginak betetzeko, nolako prestigioa duten zeregin eta erabilera horiek...
-  **Hizkuntzaren corpusa.** Hizkuntzaren corpusa hiztun-komunitatearen ondare linguistikoa da: komunitate horrek erabiltzen duen hiztegia, partekatzen dituen adieramoldeen errepertorioa, egiten duen testu-ekoizpena...

Aurreko jardueretan ikusi dugunez, azken 30 urteotan euskarak eremu berriak irabazi ditu eta garapen-prozesu nabarmena izan du administrazioan eta arlo juridikoan. Hala ere, oraindik bidearen zati bat ere geratzen zaio egiteko, erabateko normalizazio-egoerara iristeko. **Zein dira orain arteko ibilbideak erdietsitako lorpenik aipagarrienak? Eta lortzeke dauden erronken artean, zein dira azpimarragarrienak?**

## HIZKUNTZAREN ESTATUSARI DAGOZKIONAK

### LORPENAK

- Euskararen ofizialtasuna euskararen eremu batzuetan
- Euskararen normalizaziorako hainbat lege eraman dira aurrera hizkuntzaren garapena sustatzeko eta euskara derrigorrezko ikasgai bat baino gehiago izateko
- Euskal eskola publikoko 1993ko legearen ondorioz, botere publikoek hizkuntza ofizialen ikaskuntza bermatu behar dute eta horrela, derrigorrezko hezkuntza bukatzean ikasleek euskararen ezagutza izatea bermatuko dute
- EAEan 2001ean normalizazio linguistikorako legea sartzearen ondorioz, 3 ereduaren agerpena eman zen eta azken urteotan ikus daiteke D eredu (irakaskuntza guztia euskaraz, eta gaztelania irakasgai bat bezala astean zenbait ordutan) besteen gainetik gailenduz joan dela
- Euskarak Europan babes berezia lortu du, Europako Kontseiluaren Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunean (1992/11/5)
- Justizia Administrazioan Hizkuntzaren erabilera Normalizatzeko Plangintza (JAHNP)
- Lanpostu publikoetarako lehiaketetan lehentasunezko meritutzat baloratzen da euskara kasu askotan

- Langile publiko askok hizkuntza-eskakizunak bete behar dituzte eta euskara ikasi behar izaten dute eskatutako maila egiaztatu arte
- Euskal Autonomi Erkidegoko erakunde judizialerako hizkuntza ofizialkidea da euskara
- Abokatu euskaldunen sindikatuaren sorrera.
- Euskarak inoiz baino presentzia zabalagoa eta sakonagoa dauka Zuzenbidean, eta inoiz baino testu juridiko gehiago eta teknikoki espezializatuagoak ekoizten dira.

## LORTU GABEAK

- Zenbait euskal lurraldetan euskarak ez du erabateko ofizialtasuna
- Zenbait euskal lurraldetan euskarak ez du estatus ofiziala
- Europar Batasuneko maila bigarren mailako hizkuntzat hartzen da euskara
- Nazioartean euskarak ez du beste hizkuntzek duten trataera berbera
- Estatusaren aldetik, gaztelaniak euskarak baino maila handiagoa du oraindik alor guztietan
- Ofizialtasuna ez da eremu guztietan bermatzen (osasun zerbitzu, Ertzaintza...).
- Jende askok ez daki euskaraz, edota ez du euskara-maila nahikorik; horrek oztopatu egiten du euskararen erabilera, dakitenek ezin dutelako erabili, hala nahita ere.
- Euskararen erabilera normalizaturako baldintzak ez dira ezarri
- Ez dugu hizkuntza politika burujabea
- Enplegu Publiko Eskaintza askotan euskara jakitea oraindik meritu gisa kontuan hartzen da, ez betebeharra bezala. Ez da derrigorrezkoa euskal hiztuna izatea administrazioan lan egiteko
- Zenbait erakunde eta zerbitzutan langile gutxi daude euskaraz dakitenak
- Erakunde, zerbitzu publiko eta langile publiko batzuek euskararen erabilera gutxiestea, gaitzestea edota galaraztea
- Oso maiz gertatzen da dokumentazioa erdara hutsez aurkeztea, eta ia inoiz euskara hutsez egitea; euskaraz aurkezten denean zerbait, gaztelaniaz ere aurkeztu behar izaten da.
- Euskararen eremuan bi sistema juridiko desberdin daude, eta ez da ahalegin handirik egin euskararen normalizazioa lantzeko sistema frantsesaren eta espainolaren ikuspegi bikoitzetik
- Arlo juridikoan, kasu askotan, modu sinbolikoan baino ez da erabiltzen euskara
- Epailerek ez dute euskara ezagutzeko obligaziorik, eta gutxi dira euskaraz dakitenak
- Zuzenbidearen alorreko erakundeetan (elkargoetan, zuzenbidearen akademietan, eta abar) euskarak toki testimoniala baino ez du izaten; euskara elemento protokolario edota edergarri gisa erabiltzen da
- Itzulpenen balio juridikoa mugatua edota zalantzarikoa da
- Epailak, fiskal eta idazkari judizial guztiek ez dute euskararen normalizazioarekiko jarrera positiboa
- Estatu mailan, EBO/BOE-ren eranskinak ez dira euskarara itzultzen (bai katalan, galego eta valentziarrera)

## HIZKUNTZAREN ERABILERARI DAGOZKIONAK

### LORPENAK

- Gero eta herritar gehiagok dakite euskaraz
- Gero eta jende gehiago dabil euskara ikasten, lanerako behar duelako baino ez bada ere
- Gero eta gehiago erabiltzen da euskara hedabideetan, esaterako irrati, telebista, egunkarietan...
- Gizarteari informazioa helarazteko dokumentu ofizial gehienak bi hizkuntzetan idazten eta zabaltzen dira
- EAEn eta Nafarroako eremu batzuetan, legez, bermatuta dago euskara Administrazioarekiko harremanetan erabiltzeko eskubidea, nahiz eta praktikan askotan ez den posible
- Udal askotan euskara erabiltzen da lehen hizkuntza gisa dokumentu administratiboetan
- Udal batzuetan euskara maiz eta normaltasunez erabiltzen da barruko komunikazioan
- Legebiltzarkide batzuk euskaraz mintzen dira lehenetsunez eta sistematikoki beren agerpen publikoetan
- Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko langileen %30 euskaraz egiteko gai da
- EAEn Zuzenbidea euskaraz ikasteko aukera bermatuta egotea
- Belaunaldi berrietako profesionalen artean, hainbat legelari euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen dira

### LORTU GABEAK

- Eskualde batzuetan hitzunez duten euskararen ezagutza mugatua da
- Euskara ez da eremu publiko guztietara hedatu
- Arrazoi praktikoengatik, euskararen erabilera sinbolikoa baino ez da arlo askotan
- Euskararen erabileraren datuak ezagutzarenak baino dezente apalagoak dira, oro har
- Askotan ideologia konkretu bati atxikitzen zaio hizkuntza baten erabilera
- Ezberdintasun handiak daude oraindik herrien artean, hau da, zenbait herritan euskararen erabilera ia erabatekoa den bitartean beste herri batzuetan euskararen erabilera eskasa da
- Euskarak hedadura handia du testu idatzien artean, bana ahoz oso gutxi erabiltzen da administrazioan zein zuzenbidean
- Estatuko funtzionario askorekin ez dago euskaraz egiterik
- Herritar askok erdaraz hitz egiten dute administrazioan "no se euskera" edo "on francaise" eta holakoak ekiditeko.
- Tramiteak euskaraz eginez gero, maiz gertatzen da prozesuak luzatzea eta atzeratzea
- Herritar elebidun askorentzat administrazioa hizkera iluna da
- Iluntasun hori dela eta, gazteleraz egiteko joera handia dago. Hala ere, hau herriaren araberakoa da, euskaldunagoa den herri batean euskararen erabilpena botere publikoen aurrean ohikoa da
- Adineko pertsonen administrazioaren euskara arrotz zaie
- Dokumentu administratiboetan, txostenetan eta abar erabiltzen den hizkuntza-eredua ez da oso egokia
- Askotan, administrazioa langileek ez dute menperatzen erregistro administratibo juridikoa

- Zuzenbidea gaztelaniaz ikasi duten jurista euskaldunek ez dute euskarazko terminologia ezagutzen; Zuzenbidea euskaraz ikasi dutenek, aldiz, gaztelaniazko terminologia ere ezagutu ohi dute
- Epailak ez dute euskara ezagutzeko obligaziorik, eta gutxi dira euskaraz dakitenak
- Euskaldun hiztun askok arazoak daukate epaitegietan euskaraz aritzeko - Administrazio langile askok, euskara zaindua ez daukatenez, itzultzaileengana jo behar dute edozein idazkia prestatzeko
- Prozesu judizialean itzulpenetara jo behar izaten denean beti galtzen da zerbait bai lekukoan eta bai abokatuaren alegazioetan
- Zinepeko itzultzaile gutxi daude epaitegietan
- Itzulpen-lanak ez dira beti behar bezain ondo zaintzen, balioesten eta ordaintzen, eta hori emaitzetan igartzen da
- Euskara hutsez auzitaratzeko aukera
- Orain arte ez da ia doktore-tesirik egin euskaraz zuzenbidearen alorrean

## HIZKUNTZAREN CORPUSARI DAGOZKIONAK

### LORPENAK

- Euskara Batuaren ereduak asko garatu da eta ia erabateko aintzatespena irabazi du gizartearen
- Joskera molde estandarrek ere bateratzen ari dira
- Itzultzaileek oso lan emankorra egin dute lege-testuak eta administrazio testuak euskaraz emateko baliabideak proposatzen
- IVAPek lan handia egin du Administrazio euskara eguneratu, garatu eta hobetzeko
- Euskarazko Agiriak Normalizatzeko Batzordea sortu zenez geroztik (1996an) epaitegietako inprimaki nagusi guztien ereduak estandarizatu dira
- 1992az geroztik Administrazioan Euskaraz aldizkaria dugu, Administrazioaren alorreko gaiak jorratzeko
- ELERIA aldizkaria sortu zen 1996. urtean Zuzenbidearen alorreko artikulak akademikoak argitaratzeko euskaraz
- Hainbat talde ari dira Zuzenbidearen alorreko terminologia lantzen eta bateratzen
- Eusko Legebiltzarrak estilo-liburu elektronikoa bat eskaintzen du bere web orrian
- IVAPek estilo-liburu elektronikoa bat eskaintzen du bere web orrian
- Gero eta lege-testu gehiago daude euskaraz emanak
- Maila zientifikoko testu juridikoak gero eta ugariagoak dira.
- Legelarien hizkuntza-gaitasuna hobetu egin da.

## LORTU GABEAK

- Eskualde batzuetan hitzunik duten euskararen ezagutza mugatua da eta horrek kalitatean eragin nabarmena du
- Euskaldun eskoladunen idatzietan maiz agertzen dira gramatika-okerrak, estilo-zalantzak eta hiztegi-gorabeherak
- Estandarizazio-prozesua oraindik ez da amaitu
- Zuzentasuna lehenetsi da egokitasunaren kaltean
- Kritika ugari egin dakizkioke erabiltzen den euskara estandar idatziari
- Administrazioan eta Zuzenbidean euskarak ez dauka oraindik erabateko garapena eta estaldura
- Tradizio falta dugu, Zuzenbidearen alorrean gehienbat
- Euskara, gehienetan, bigarren mailako hizkuntza da: itzulpen-hizkuntza soila
- Administrazio langile askok, euskara zaindua ez daukatenez, itzultzaileengana jo behar dute edozein idazki prestatzeko
- Euskara bigarren mailako hizkuntzatzat uzteak hizkuntzaren kalitatea galtzea dakar
- Ez dago batere argi zer toki izan behar duten euskalkiek administrazioan eta arlo juridikoan; zenbait toki eta erakundetan erabat bazterturik daude eta hori euskararen kalte izan liteke
- Oso gutxi dira jatorriz euskaraz egiten diren lege-testuak edota testu administratiboak
- Asko dira itzultzeke daude liburu, lege-testu, artikulua edota eskuliburuak
- Oso testuliburu gutxi euskaraz; eta daudenak ere ez dira oso egokiak
- Argitalpen juridiko-teoriko gutxi dago euskaraz (zuzenbide manualak, ikerkuntza artikulua etb)
- Itzulpenek oso balio juridiko mugatua dute; ia bat ere ez
- Zenbait lege-testuren itzulpena, esaterako kodeena, txarra da eta askotan ez da ondo ulertzen eta ondorioz, gaztelaniaz irakurtzera jo behar da
- Oso aldizkari espezializatu gutxi argitaratzen dute euskaraz; eta euskara hutsez batek bakarrik: ELERIAK
- Orain arte ez da ia doktore-tesirik egin euskaraz zuzenbidearen alorrean
- Administrazio publikoetako inprimaki guztiak ez daude erabat estandarizaturik euskaraz
- Ortografia aldetik akats ugari euskarazko dokumentuetan
- Terminologia juridikoa ez dago guztiz bateratua
- Batzuetan arazoak daude euskarazko eta gaztelaniazko ordainak guztiz baliokideak ez direlako edota itzulpenak anbiguoak direlako
- Oraindik termino juridiko batzuek gaztelararen kalko gordinak ematen dute
- Nork egiten duen itzulpena, horren arabera terminologia ezberdina erabiliko da. Horrek gauzak nahastu egiten ditu.
- Terminologia juridikoa ez dago guztiz hedatu eta finkatua ez operadore profesionalen artean eta are gutxiago herritarren artean
- Juristek ez dute terminologia juridikoa egoki erabiltzen
- Terminologia juridikoa erdaraz erabiltzen da ia beti oraindik ere
- Oso gutxi dira ahozkotik jasotako erreferentzia lexiko eta estilistikoak